

# PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

13-7-20 7.ALEA

**Atez atekoa  
martxan da**

2. ORR. ►►

**Ikastaroez  
galdezka**

6. ORR. ►►

**Festak  
ate joka**

8. ORR. ►►

**Senidetzea  
iruditan**

11. ORR. ►►

## ELKARRIZKETA

Joxe Mari Luengorentzat ez da gozoa izan azken hilabetea, hondakinen kudeaketa dela eta ez dela izan diren gertakarien ostean. Luze zabal hitz egin du Plazaberri-rekin.

**Ekaina amaierako galdeketak eta bere inguruan gertatuek zurrumbilo politikoaren erdian jarri dute Zizurkil. Orain gauzak baretu direnean, zer balorazio egiten duzu?**

Lehenik, herritar guztiak izan behar dira kontuan, eta hori presente izan behar dugu beti. Hor badira herritar batzuk atez atekoaren aurka daudenak. Baina hori esanda, argi ikusi da iruzur hutsa izan dela, EAJ-ren antzerkia. Nahi duten eran gehitu dituzte botoak bideoetan argi ikusten denez. Eta iruzur eta guzti ere, ez dira gehiengora iritsi. Zizurkildarren herenak eman zuen botoa. Jende hori kontuan hartu behar da, lagundu behar diogu, azaldu gauzak. Baina argi dago gehiengoak atez atekoari aukera bat ematearen aldeko apustua egin duela. Eta guk ere horixe eskatzen dugu, aukera bat ematea, gero izango da aldaketak egiteko modua eta. Sarri esan dugun moduan, 6 hilabete barru parte hartze prozesua egingo dugu sisteman behar diren aldaketak burutzeko.

**Beraiek diote tranpa egin dietela eta "fedeez" aritu direla.**

Ez dut iskanbila gehiagotan sartu nahi baina argi dago tranposoa erortzen dela tranpan.

Fede ona aipatzen dute baina bideoetako batean argi ikusten da kazetaria grabatzen ari zaie-la jakin arren EAJko bi zinegotzik tranpa egitera bultzatzen dutela herritar bat eta gero kazetariak galdetzen dienean ezetz erantzuten dute, eurek ez dutela horrelakorik egiten eta onartzen. Hori baldin bada fede ona! Gainera, ezer ezkutatze ez baduzu, zergatik ez zieten utzi herritarrei begirale bezala parte hartzen? Gaiarekin amaitzeko aipatu, emaitzak ez dituztela Udalera ekarri ere egin, prentsan eta gutunetan esan dute zenbat boto atera dituzten baina inongo ziurtagirik ez da iritsi. Izan ere, tranpetan harrapatu eta gero, zaila da inork ezer ziurtatzea.

**Galdeketa izan da azken gertakaria, baina atez atekoaren polemikak ibilbide luzea egin du...**

Guk programatik iragarria genuen kontua da, eta iazko urte hasieran hasi ginen lanean. Iazko ekainean herritar batzuk etorri ziren 600 bat sinadurarekin atez atekoa gelditzeko eskatuz. Batzarra egin genuen, ikuspuntu ezberdinak genituen baina zera adostu genuen: Udalak parte hartze prozesua egingo zuela eta aukera izango zutela kopapenaren gainean eta eraba-

# "Gehiengoa atez atekoa"

kiak hartzeko. Guk ulertzen dugu jendeak kezka izatea, aldaketa guztiak dira zailak. Gero ordea, udazkenean, EAJ sartu zen tartean, Tolosaldea Txukun plataforma pantaila bezala erabiliz, eta hori hasi ziren gezurrak erabiltzen herrira nahasteko. Lehenengo zinegotziarekin eta arratoiekin hasi ziren, ondoren 1275 sinaduraren etorri zen. Guk hasieratik susmatu genuen gezurra zela zifra hori eta eskatu genizkien sinadurak, ukatu egin zizkiguten eta sekulakoak esan ere bai. Orain badakigu gezurra zela. Eta diru kontuekin ere gezurra esan dute kataluinia-ko enpresa bati diru guztia eman diogula esanda, atez atekoaren ezarpena aurreratu dugula ere esan dute... Maiazterako jarrita nahi genuen

beretz, baina tresna guztiak eduki arte atzeratu genuen.

**EAJko zinegotziarekin minduta ikusten zaitugu...**

Minduta bai, baina batez ere pena ematen dit Udaleko zinegotzi batzuk horrela ikustea Udalaren kontra egitea beste helbururik gabe. Etxez etxe zabor poltsak zintzilikatzeko, kuboak ez jasotzeko edo zaborra lurrean uzteko herritarrei eskatuz ibiltzea nik behintzat ez nuke inoiz egingo. Hor ikusten da zenbat inporta zaien herrira txukun egotea, herritarren arteko liskarrak... Zu egon zaitzake ekimen baten alde edo kontra, eta badituzu tresnak kontra egiteko ere, baina denak ez du balio. Eurei bost inporta zaie atez atekoa, Udalaren eta Bilduren aurka egitea

## "La mayoría ha dado una oportunidad"

No han sido semanas fáciles para el alcalde de Zizurkil. La consulta realizada por la plataforma Tolosaldea Txukun le ha dejado un mal sabor de boca, tras comprobar, mediante documentos gráficos, las irregularidades llevadas a cabo por parte del PNV en la misma. Sabe que como alcalde ha de tener en consideración a aquellas personas que se po-

sicionan en contra del sistema de recogida implantado por el Ayuntamiento informándoles y atendiendo sus dudas, pero si algo ha sacado en claro de la consulta es que la mayoría de los vecinos y vecinas han optado por dar una oportunidad al sistema puerta a puerta.

Comenta que el objetivo del Ayuntamiento ha sido implantar este sistema de recogida de

# Koak atez atekoari ra bat eman dio”

*«Pena ematen dit Udaleko zinegotzi batzuk horrela ikustea»*

jarri dute guztiaren gainetik eta fede oneko herritarrak erabili dituzte horretarako.

**Koakzioa eta beldurra sartu izana ere leporatu diete Udalei EAJtik .**

Gu sistema honen ezarpena ahalik eta ondoen egiten saiatu gara. Eta akatsak egin ditugu, ez dut ukatuko. Baina inor ez dugu ez mehatxatu, ez koakzionatu. Are gehiago, kuboak etxeetara banatu behar izan ditugu, eta ez bat eta ez bi, jendea beldur zelako kuboak hartzera etortzeko. Eta irainak ere izan dira kuboak ateratzen dituztenen

aurka. Batzuk erre kara bota eta hautsi ere egin dituzte. Zer izen du horrek? Eta hau bai, ozen esan nahi dut: Ondo egiten ari denari bakean utzi. Alde edo kontra egon zintezke baina ez dago eskubiderik birziklatzen ari denaren aurka egiteko.

**Ez dira azkenak aste errazak izan alkate bezala. Herri-tarrekin hainbat eztabaida izango zenituen...**

Nik ez daukat herritarrei ezer leporatzeko. Kanpaina mediatiko izugarria izan da aurka, etxez etxe zinegotziak aritu dira kuboak ez jasotzeko eskatuz, herritarrek aldaketa baten aurreko beldurra dute... Horrekin guztiarekin ulertzekoa ere bada aurkako jarrerak sortzea. Ni saiatu naiz eskatu didanari azalpenak ematen.

**Azken mezu bat...**

Nik uste dut mundu bat egin dugula ezerezetik. Horretan denok izango dugu errua. Behin sistema probatuta, argi dut, askok “hau al zen dena?” esango dutela. Guk esan nahi dugu argi: Udaltik honetan sinesten dugulako hartu ditugula lan hauek guztiak. Botoetan pentsatzen egongo bagina etxez etxe Udalaren aurka ibili diren horiek bezala, ez ginatkeen honetan sartuko. Sinesten dugu Zizurkilentzat, eta oro har, ondorengo belaunaldiarekin arduraz jokatzeko modua dela birziklapen tasa altuenak dituen sistema ezartzea. Eta eskerrak eman nahi dizkiet hemendik oso ondo egiten ari den zizurkildarren gehien-go horri.



## «... al puerta a puerta»

residuos de la mejor manera posible, a pesar de reconocer que también han cometido errores. Lo que no acepta es que les acusen de coaccionar a nadie, menos aún cuando han podido comprobar que hay gente que no ha querido acercarse a recoger los cubos por miedo a represalias o ha sido insultada a la hora de sacar sus cubos. Por ello, hace un

llamamiento para que definitivamente cesen esas actuaciones en contra de los vecinos y vecinas que quieren reciclar. «Al PNV no le importa el puerta a puerta, se han propuesto atacar al Ayuntamiento y a Bildu y para ello se han aprovechado incluso de la buena fe de los vecinos», resume.

Opina que se ha magnificado el tema y reconoce que en

ello todos han tenido parte de responsabilidad. «Una vez que lo prueben estoy seguro que alguien se preguntará ¿esto era todo?», afirma. Desde el Ayuntamiento están convencidos de la eficacia de este sistema. «Si estuviésemos pensando en los votos, como aquellos que han estado haciendo campaña contra nosotros vecino por vecino, no nos habiéramos implicado

tanto para solucionar el problema de los residuos. Consideramos que implantar un sistema que garantiza las mayores tasas de reciclaje es una manera actuar con responsabilidad con las generaciones venideras», se reafirma. Sus últimas palabras las reserva para agradecer a la mayoría de los vecinos y las vecinas que lo están haciendo muy bien».

# Iruzur froga argiak galdeketan

Naiz.info atariak grabatutako bideo batek eta herritar batzuek egindako beste batek boto delegatua modu irregularrean erabili zela erakusten dute.

**Ikuskariak, bozkalekutik kanpo**

“Hasieratik ikusi genuen argi boto delegatuarena iruzur bide argia zela. Eta besteak beste horregatik eskatu genuen ikuskaritza egitea”. Aizpea Zabalaren hitzak dira, atez atekoaren aldeko herritar taldearen bozeramailetza egin du Zabalak azken asteetan. Talde honek galdeketa-aren aurreko egunetan eskatu zion Maria Angeles Lazkano EAJko zinegotziari eta galdeketa-aren antolatzaileari ikuskaritza lana egin nahi zutela. “Elkarrizketa lasaia izan genuen berarekin, eta esan zigun galdeketa-aren aurka hitz egin genuelako ez ginela bertan ikuskari izango. Gero- ra modu txarrez eta berandu joan ginela asmatu dute, gezurra dena erabat”.

*«Edonork edonoren izenean eman du botoa emaitzak puzteko»*

**Irregularitasun ugari**

Hainbat irregularitasun aipatu ditu Zabalak: “Boto delagatuarena fartsa bat izan da, edonork edonoren izenean eman du botoa emaitzak puzteko. Horrez gain, zizurkildarrak ez zirenei faktura batekin botatzen utzi zaie, baina gero portzentaia zizurkildarrek soilik bozkatu balute bezala ateratzen dute. Amaitzeko, notario- rik ez da egon, hor ere gezurra esan dute. Ez da kontaketa- n ere izan. Guztia txapuza handi bat izan da, adar jotze bat sistema- ren alde eta aurka gauden he- rritarrontzat”.



**Bideo 1:** Maria Angeles Lazkano alkate ohia agertzen da bere gizonaren izenean botoa eman nahi duen herritar bati gizonaren sinadura egitera animatuz. Nagore Puyadena Villabonako zinegotziaren babesa du horretarako. Hau boto kutxak ireki eta behala, kazetari guztiak han direla gertatzen da. Gero kameraren galderari erantzunez Villabonako EAJko zinegotziak ukatu egiten du inork besteren izenean sina dezakeenik eta hori ez dutela onartzen esaten du.

**Bideo 2:** Atez atekoaren aldeko pertsona batek erakusten du zizurkildar baten izen eta abizena jakinda, DNI zenbaki faltsu batekin, zizurkildar horren izenean botoa eman dezakeela. Bigarren abizenik ez daki, baina Egoitz Sorozabal EAJko zinegotziak berak zerrenda begiratuta zein izan daitekeen esaten dio.



## Pruebas de irregularidades en la consulta

Horas después de la consulta de Zizurkil, vieron la luz dos videos que demuestran irregularidades con el voto delegado. En el primero, publicado en la página Naiz.info, se puede ver como la concejala del PNV Maria Angeles Lazkano anima a una vecina a firmar el voto

delegado en nombre de su marido. En el segundo video grabado por vecinos favorables al puerta a puerta, se ve como una persona puede votar en nombre de otro zizurkildarra simplemente sabiendo el nombre y el primer apellido. “Ya se veía venir, y por eso pe-

dimos estar de observadores, aspecto que se nos negó”, remarca Aizpea Zabala, portavoz de la plataforma a favor del puerta a puerta. Zabala habla de varias irregularidades. “Aparte del fraude del voto delegado, se dejó votar a personas no empadronadas en la

localidad con una simple factura; posteriormente sacaron el porcentaje de participación como si solo hubieran votado las personas empadronadas en Zizurkil. Además, hablan de notarios, cuando en Zizurkil no los hubo ni en el recuento de votos”, reitera.

# Atez ateko bilketa sistemaren ezaugarriak

**Hilabetetik gora darama atez atekoak Zizurkilen. Hemen argibide nagusiak.**

Atez atekoaren oinarrian hondakin guztiak modu selektiboan biltzea dago. "Zizurkilen kubo bidez egiten da. Herritarrek kubo horiek atera behar dituzte ezarritako lekuetara" zehaztu digu Aitor Sarasua ingurumen zinegotziak. Astelehen eta ostegunetan ontzi arinak, astearte, ostiral eta igandetan organikoa, asteazketan papera eta larunbatean errefusa. "Ordutegia 20:00etatik 22:00etara jarri dugu, baina ez da ezer gertatzen lehentxeago atera behar izanez gero edo beranduago. Hori bai kontuan hartu behar da bilketa 23:00ak aurretik hasten dela", zehaztu du Sarasuak. Ekarpenean guneak dira sistemaren beste ardatza. "Etxe diseminatuetan, organikoa autokonposta bidez kudeatu eta gainontzekoa ekarpen guneetara ekarri behar dute. Eta edozein herritarrek ere, etxean hondakin asko badu, ekarpen gunera eraman dezake". Momentuz Elbarrenako geltokiko aparkalekuan dago ekarpen gune bat eta bestea Azken Portu inguruan egingo da. "Lur batzuk kendu behar dira eta irailerako

egina nahi dugu". Kaleko zaborrontziak ere datozen asteetan aldatzea aurrizkusten dute. "Horrez gain, kuboekin batera banatu den gidan sailkapena egoki egiteko azalpen guztiak daude eta martxan jarraituko du hondakinen bulegoak, bertan jaso ditzakete herritarrek argibide guztiak".

## Zizurkil Goian

Zizurkil Goian, baserri sakabanatuetako beste herri txikietan bezala, autokonposta edo auzokonposta da oinarria. "Eurek kudeatzen dute hondakin organikoa, kaleakoez auzokonposta bidez eta baserri eta



Hilabete batez izan da kuboak jasotzeko aukera.

etxeetakoek norberak duen konpostagailuan". Gainontzeko hondakinetarako bi ekarpen gune jarri dira, eta etxeetan banatzear dira bertara sartzeko txartelak.

"Bi gune jarri ditugu momentuz, aurrerago ikusiko dugu besterik jartzeko beharrik edo modurik baden, aurrekontua eta abar aztertuz".

## Guía para el puerta a puerta

La base del sistema de recogida puerta a puerta es la recogida selectiva de residuos. "En Zizurkil, se hace mediante cubos. Los lunes y jueves, envases; los martes, viernes y domingos, orgánico; los miércoles papel; y los sábados, resto", explica el concejal Aitor Sarasua. El horario es de 20 a 22 horas, "pero no ocurre nada si tenemos que sacarlo

antes o algo después. Eso sí, hay que tener en cuenta que la recogida empieza antes de las 23:00".

Los puntos de emergencia son otra de las bases del sistema. "Cualquier vecino o vecina puede hacer uso de estos puntos de emergencia si tiene una gran cantidad de residuos en casa o por cualquier otra razón". En El-

barrena hay un punto instalado en el aparcamiento de la estación y se prevé construir otro en el barrio Azken Portu. "En cuanto a las dudas que pudieran surgir, en la guía que se repartió con los cubos aparecen todas las indicaciones para la separación efectiva de los residuos y la oficina de información permanecerá abierta".

# Udala ikastaroei buruz galdetzen

6

Kultura Sailak antolatzen diren ikastaroei buruz herritarrek duten asebetetze maila jakin nahi izan du, datorren ikasturteari begira eskaintza aldatu edo hobetzeko.

Udalak ikasturtero eskaintzen duen ikastaro sorta nahiko finkoa da. Azken bost urteetan eskaintza antzekoa izan da. Haurrentzat euskal

dantzen ikastaroa antolatzen da. Azken bi urteetan haurrentzako antzerki tailerra ere eskaini da, baina ez da talde-rik sortu. Helduei zuzenduri-

ko ikastaroetan, aldiz, aukera zabalagoa da: Yoga, pilates, sabel dantza, esku lanak edota pathword ikastaroak eskaintzen dira Atxulondon; gimnasia, helduentzako alfabetatzea zein eskulan tailerrak izaten dira Iriarten. Ikastaro guzti hauetako erabiltzaileei inkesta bat pasa zaie euren asebetetze maila jakiteko. Era berean, herriko hiru ikastetxeen bidez guraso eta hurrei galdetu zaie haurrentzat zein ikastaro antolatzea gustatuko litzaiekeen. Ikastaroetako erabiltzaileei

dagokionez, parte hartzea ia erabatekoa izan da. Guraso eta haurren artean egin den galdetan berriz oso erantzun gutxi jaso ditu udalak.

## Balorazio ona

Inkestan ikastaroen aspektu ezberdinak ebaluatzeko galderak egin dira: Ikastaroko irakasleari buruzkoa, baliabide espazial eta materialen gainera, ikastaroaren alde onak eta txarrak adierazteko edota zein ikastaro berri faltan botatzen duten jakiteko.

Orokorrean, erabiltzaileek eskaintzaren gaineko balorazio ona egin dute. Hobetzeko zenbait puntu ere eman dituzte ordea. Horiek baliabideen gainera, ikastaroko irakasleari buruzkoa, baliabide espazial eta materialen gainera, ikastaroaren alde onak eta txarrak adierazteko edota zein ikastaro berri faltan botatzen duten jakiteko.

Atxulondon antolatzen diren ikastaroen kasuan, eraikineko sarrera hobetzeko beharra adierazi dute erabiltzaileek. Puntu hau ordea Joxe Arregi Plazan egiten ari diren berritze lanekin lotua dago, eta beraz, behin behineko egoera da. Aretu nagusian ematen diren ikastaroetako ikasleek, koltxonetak garbitzea eta dantza ikastaroetako ispilu bat jartzea eskatu dute. Era berean, yoga ematen den gelan dagoen moketan



Euskal dantzen ikastaroan parte hartzen duten haurrek senidetze egunean dantzatu zuten.

hauts handia pilatzen dela eta, maizago garbitzea eskatu da. Garbiketari dagozkion eskaerak betetzeko medioak jarri ditu dagoeneko Udalak.

Bestalde, Iriarte Kultur Etxeko erabiltzaileek, geletan hotza egiten duela adierazi dute. Hau konpontze aldera, eraikinetako mantenimenduaren ardura duen herriko langilearekin hitz egin da. Amaitzeko, eraikinean wifa jartzeko eskaera ere egin dute.

“Ondorio xumeak dira, baina ikastaroetako erabiltzaileen egunerokotasunean eragina dutenak. Eskaera batzuk bideratu dira dagoeneko, eta beste batzuk aztertzen ari gara”, adierazi du Alaitz Ormazabal kulturaz zinegotziak.

#### Eskaera berririk ez

Orain arte eskaintzen diren ikastaroen gain, herritarrek eskaintza berriren bat faltan botatzen ote duten jakiteko interes berezia zuen Udalak. Bada, galdera honetan ez da erantzun bateraturik egon.

*«Erabiltzaileek erakutsi duten iritzi ona kontutan hartuta, orain arteko ikastaroak mantendu egingo dira»*

Taichi-a, sukaldaritza, bitxigintza eta bestelako ikastaroak eskatu dira, baina ez da ikastaro jakin baten gaineko eskaera orokorrik egon. Ondorioz, aukera berriren bat edo beste egon daitekeen arren, datorren ikasturteko ikastaro eskaintzan ez da aldaketa handirik egongo. Kultura saila eskaintza hori aztertzen eta prestatzen ari da une honetan. Ziurtatu dezakeena, erabiltzaileek erakutsi duten iritzi ona kontutan hartuta, orain arteko ikastaroak mantendu egingo dituela.

## Bukalai dantza taldea berriro bueltan

Euskal dantzen ikastaroak, urtetik urtera haur gehiago hartu ditu. Zortzi umerekin hasi zen ikastaroa duela 5 urte. Orain, berriz, 60 ume inguru elkartzen dira asteazkenero Alurr dantza taldeko irakaslearen gidaritzapean. Haur hauen gurasoak Bukalai dantza taldeko estatutuak eguneratu eta dantza taldea berriro martxan jartzeko helburuarekin ari dira lanean.

1989ko data dute Bukalai Dantza Taldeko estatutuak. Geroztik, hainbat urte egin zituen Zizurkilgo dantza taldeak martxan, irakaslerik gabe geratu zen arte. Orduan, Udalak hartu zuen euskal dantzak herrian sustatzen jarraitzeko konpromisoa. Euskal dantzen ikastaroak antolatuz eutsi zion ardura horri. Baina haurrek inguruko herrietako dantza taldeetara alde egiten zuten. Duela bost urte Alurr Ibarrako dantza taldearekin harremanetan jarri zen Udaleko kultura teknikaria. “Hauen proiektuaren funtsa, herrietako dantza taldeak berreskuratzea zen. Finean, haurrei herrian dantza egiteko aukera ematea”, adierazi du Ainhoa Larrea teknikaria. Egun, 4 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek egiten dute dantza Zizurkilgen, ondoren Villabonara edo beste herri bateko dantza taldera joaten direlarik. “Erronka, herrian geratzea da, herriko dantza taldea sustatzea”. Helburu horrekin bat egin dute gurasoek. Proiektua badago, haurrak badaude, dantza taldea elkarte bezala erregistratzea da hurrengo pausua. Horretan ari dira gurasoak. Beraz, Bukalai, Zizurkilgo dantza taldea bueltan da!

7

## Encuesta sobre los cursillos de cultura

El Departamento de Cultura ha querido saber la opinión de los usuarios y las usuarias sobre los cursillos que el Ayuntamiento oferta anualmente. Para ello, ha difundido una encuesta a través de los tres centros educativos. Estos últimos años la oferta no ha variado apenas. Para los más pequeños se organiza el curso de danzas vascas. En cambio los mayores tienen un abanico más amplio: yoga, pilates, danza del vientre, trabajos

manuales, y pathword en Atxulondo; y gimnasia, alfabetización en euskera y trabajos manuales en Iriarte.

En general, los usuarios se han mostrado satisfechos con la oferta. Pero también han marcado algunos puntos a mejorar. Casi todos tienen relación con los medios materiales y el espacio. Por ejemplo, muchos han mostrado su desacuerdo con el acceso de Atxulondo. En este caso, el Ayuntamiento pide pacien-

cia, ya que el acceso al edificio está ligado a las obras que están haciendo en la plaza. Por lo demás, las peticiones que más se han repetido han sido limpiar más a menudo la moqueta del aula de yoga, poner un espejo para las clases de danza o en el caso de la casa de cultura Iriarte, poner wifi y aumentar la temperatura de las aulas. “Algunas demandas ya han sido atendidas, como las relacionadas con la limpieza”, ha explicado

la concejala de cultura Alaitz Ormazabal.

En cuanto a la renovación de la oferta de cursillos, no ha habido ninguna petición general. Las aportaciones han sido puntuales y no se han repetido: taichí, cursos de cocina, talleres de bisutería...

En consecuencia, teniendo en cuenta que el nivel de satisfacción de los usuarios es alto, el Ayuntamiento mantendrá los cursillos que se han impartido hasta ahora.

# Suziria abiarazteko prest

Amabirjin jaiak hastear dauden bitartean, Arantzazuko jaietakoei azken ukituak ematen ari zaizkie Festa Batzordeko kideak.

8 Eguraldi onak huts egin dezake. Askok ere ezin dituzte oporrak egin. Baina, udan sekula falta ez den osagai dira jaiak: baten faltan, gainera, bi izaten ditugu, eta lehenak jada ate joka ditugu.

Amabirjin jaiak osatuta daude jada. Abuztuaren 14aren zain dira herritarrek suziria pizteko. Aurtengoan 2013ko Txapel Egunaren txapeladun diren Txapel Eguneko sortzaileak izango dira jaietako hasiera emateko arduradun.

Egun horretan bertan burutuko dute oilasko biltzea eta herri afaria. Herri kirolek tarte garrantzitsua izango dute jaietan: herritarren arteko lehia ikusi ahal izango da Ama Birjinaren egunean,

eta hurrengo egunean harri jasotzeko eta aizkorako erakustaldia izango da. Ohiko Zimiterioko Pilota Txapelketa larunbatean egingo da.

Urtez urte jende ugari biltzen duen bertso saioa ere izango da gozagai, eta Korrontzi, Laiotz, Gugaz, Zesuma, Ai Ene eta Trakets izango dira aurtengo musikaren gautxoriak. Mozorroa prestatzen ere has daiteke jaietara hurbildu nahi duenak, abuztuaren 18a, azken eguna, aukeratu baitute mozorro gauerako.

Handik hilabete eskasera, berriro ere zapi eta brusak prestatu, eta Arantzazuko Amabirjinaren jaietako zaie. Irailaren 5etik 9ra izan-

go dira aurtengo jaiak. Joxe Arregi plazaren inguruak berregituratze lanen eraginez itxita egongo direnez, Ula aurreko eta trenbideko zubiaren alboko zabaldegia izango da aurtengo jaietako gune nagusia; ordurako, egun aparkalekuan egiten ari diren lanak amaituta egotea espero da.

Beharren arabera eta egunak hurbildu ahala gehiagotan ere bildu badira ere, ostegunero Atxulondon biltzen da festa batzordea Elbarrenako jaiak prestatzeko, eta bilera horietatik atera diren ekintzetako batzuk aurreratu dizkigute. Aspaldiko usadioa berreskuratuz, nabarmentzekoa da, azken astelehenean burutuko den melokotoiaren entierroa: "Jaietako amaiera emateko lehen egiten zen zerbait da, eta aurten egingo dugu berriro aspaldiko partez", azaldu dute festa batzordetik.

Herritar guztiengan pen-

*«Ula aurreko zabaldegia izango da aurtengo jaietako gune nagusia»*

tsatuz, egitarau zabala prestatzen dihardute: "Haurrentzat zirko tailerra izango da ostiralean eta Pirritx eta Porrotx astelehenean; pailazoak dauden bitartean, futbolin txapelketa antolatu da helduagoentzat. Bestalde, herritarren dantza egingo da igandean". Dantzarako entseguak ekainaren 29an hasi ziren, eta ordutik ostiraleko 19:00etatik aurrera, Pedro Mari Otaño eskolan.

Atera zapiak kutxatik, kendu hautsa brusari eta presita itzazu oinetako erosoak. Abuztuaren 14rako atera eta gogoratu: irailaren bigarren astera arte, ez gorde.

## Todo listo para encender la mecha

Con el verano, las fiestas de Zizurkil están al caer. Las primeras fiestas se celebrarán del 14 al 18 de agosto. Los creadores y los protagonistas de la Txapel Eguna de este año serán los encargados de lanzar el chupinazo. El deporte rural tendrá un papel importante: por un

lado, el día 15, se podrá presenciar una competición entre vecinos y vecinas, y al siguiente día, habrá una demostración de aizkolaris y harri-jasotzailles. Como viene siendo habitual, la actuación de los bertsolaris, que suele reunir a decenas de personas, tampoco faltará a su

cita, y grupos como Korrontzi, Laiotz o Trakets se sumarán a la fiesta de noche. Las fiestas de Elbarrena se celebrarán del 5 al 9 de septiembre. Este año, y a causa de las obras que se están llevando a cabo en la plaza Joxe Arregi, los principales actos se realizarán en la ex-

planada situada caminoa a Ula, al lado del puente de la vía del tren. La comisión de fiestas ya ha adelantado algunas de las actividades organizadas entre las que destaca la recuperación del entierro del melocotón, que dará fin a la temporada festiva del 2013.



# Amabirjin jaiak 2013

## Abuztuaren 14a, asteazkena

- **07:00etan:** Oilasko biltzea herriko baserrietan.
  - Parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa izango da brusa eta txapela gizonezkoentzat eta baserritar jantzia emakumezkoentzat.
- **13:00etan:** Jaien hasiera.
  - 2013ko Txapel Eguneko txapeladun izan diren Txapel Egune-ko sortzaileek piztuko dute herriko jaien hasierako suziria Iriarte Etxeko balkoian.
- **Ondoren,** oilasko biltzaileen dantzaldia.
- **19:00etan:** Katerik gabeko bizikleta jaitsiera hilerritik plazara.
  - Sariak: afari bana irabazleari eta lehen herritarri.
- **21:00etan:** Herri afaria plazan.
- **Gauerditik aurrera:** Laiotz dantza taldea.

## Abuztuaren 15a, osteguna (Ama Birjinaren eguna)

- **11:00etan:** Meza nagusia.
- **12:00etan:** Umeen pilota partidak Zimiterioan.
- **18:00etan:** Herritarren arteko herri kirol lehia.
  - Segan: Mendizabal- Lizarazu / Loidi- Intxaustiren aurka
  - Harri jasotzen: Otaegi / Ipintza.
  - Proba bat baino gehiago egin beharko dute herritarrez osatuko bi taldek.
- **Segidan,** sagardo dastaketa plazan. Bien bitartean, Gugaz taldeak alaituko du giroa.
- **23:00etan:** Bertsolarien saio nagusia.
  - Andoni Egaña
  - Maialen Lujanbio
  - Jexux Mari Irazu
  - Amaia Agirre
  - Jon Maia
  - Amets Arzallus

Gai-jartzailea: Igotz Alkorta

- Ondoren eta goizaldera arte, Gugaz taldea.

## Abuztuaren 16a, ostirala (Ama Birjinaren bigarrena)

- **12:30etan:** Herri kirolen erakustaldia.
  - Harri jasotzen:
    - Aimar Irigoien
    - Beñat Telleria
  - Aizkoran:
    - Jon Irazu eta Joseba Otaegi
    - Iñaki Azurmendi eta Mikel Larrañaga
- **14:00etan:** Jubilatuen eta herri-kirolarien bazkaria.
  - 18:00tan, herriko taldeak alaituko du bazkalondoa.
- **18:00etan:** Idi-proba Plazaberrin.
- **23:00etan,** Korrontzi taldearen kontzertua frontoian
- **Ondoren eta goizaldera arte,** Zesuma taldea.

## Abuztuaren 17a, larunbata (Umeen eguna)

- **12:00etan:** Krosa.
- **11:45etan,** kroserako izen-ematea.
- **12:30etan:** Buruhandiak. Ondoren, jolasak.
- **14:00etan:** Bazkaria herriko umeentzat.
- **15:30etatik-19:30etara:** Puzgarriak, kart pista eta jolasak.
- **16:00etan:** XXIII. Mus txapelketa Zentroan.
  - Izen ematea: 15 €/bikoteko.
- **22:30etan:** Eskuz binakako XI. Zimiterioko Pilota Txapelketa
  - 3. eta 4. postuak
  - Finala
- **Ondoren,** Ai Ene taldea.

## Abuztuaren 18a, igandea

- **12:30etan:** Lorez jantzitako balkoi eta atari ederrenen erakusketa plazan eta sari banaketa.
- **18:00etan:** Zizurkilgo VIII. trikitixa txapelketa
  - Ondoren, Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia

*Mozorro gaua: gai librea*

- **21:00etan:** Oilasko afaria
- **Gauerdian:** Gau pasa Trakets taldearekin
- **Goizaldera,** sari berezia emango zaio mozorrorik onenari. Talde onenari eta bakarkako mozorro onenari: 300 euro goxo.

# Auzolanean herria edertzen

Herritar talde bat elkartu da herria lorez apaintzeko. Ekaina amaieran Pedro Mari Otaño plazako zuhaitz inguruan aritu ziren auzolanean landaketa lanetan.



Auzolanean landatutako loreen zaintzaz ere arduratuko da taldea.

tatu eta zaindu egin behar da. Horretaz ere arduratuko da herritar taldea.

## Amabirjin jaietan ere loreak protagonista

Ekimen hau aurtengo Amabirjin jaietan lehenengoz egingo den lehiaketa batekin lotu

dute: Balkoi ederrenaren lehiaketarekin hain zuzen ere. Herritarrek euren balkoiak lorez apaintzeko deia egin du festa batzordeak. Jaien aurretik Zizurkil Goiko balkoi eta atari politenei argazkia aterako diete antolatzaileek eta jaietan erabakiko da zein den ederrena.

10

Bizilagunak izateaz gain, zaletasun bera du herritar talde honek: Loreak. Herria lorez alaitzea da euren helburua. Eta krisi garaian gaudela kontutan hartuta, auzolanean lan hori eurek egitea erabaki dute. San Joan astean, bazkal-oste batean jarri zuten hitzordua. Lan tresnak, loreak, lurra eta herrian egindako konposta hartuta azaldu ziren. Dozena bat lagun izan ziren lanean aritu zirenak, eta beste horren-

beste edo gehiago ikusmiran gerturatu zirenak. Lehenik zuhaitz ingurua oholez itxi zuten. Ondoren lurrari bira ematen aritu ziren. Hau ongarritu zuten gero, herrian egindako konposta erabiliz. Behin lurra gozatuta kolore eta era guztietako loreak landatu zituzten zuhaitzaren inguru osoan.

Herriko plaza ez ezik, udal-etxeko balkoiak ere lorez bete dituzte. Landatzea ordea ez da nahikoa. Landatutakoa urez-

## Plantando flores en "auzolan"

Un grupo de vecinos y vecinas de Zizurkil que les une la pasión por las flores, se han reunido con el objetivo de decorar algunos rin-

cones del pueblo. Mediante auzolan, han empezado por plantar flores alrededor del árbol ubicado en la Plaza Pedro Mari Otaño. Con los

utensilios necesarios y el compost para enriquecer la tierra, en unas horas consiguieron plantar un hermoso jardín alrededor del árbol.

También han llenado de flores los balcones del Ayuntamiento. Además, de la labor de plantación, han asumido su cuidado.



## Zizurkil herriartekoan, bikain

11 urtez parte hartu gabe egon ostean, Gipuzkoako herri arteakorako taldea aterra du aurten Zizurkilek. Lan bikaina egin dute gainera, final laurdenetara iritsi baitira Lezo eta Bergara herriei

irabazi ostean. Kadeteetan Mikel Garin eta Jokin Arregi aritu dira, jubeniletan Peru Labaka eta Jon Erasun eta afizionatuetan Iñaki Lizaso eta Imanol Arruti. Zorionak denei!

# Aiztondo – Segundo Montes, 20 urte eskutik

Aurten 20 urte bete dira El Salvador-eko Segundo Montes komunitatea eta Aiztondo bailara senidetu zirenetik. Urteurrena ospatzeko hainbat ekimen egin ziren Maiatza Saltsanen baitan. Garrantzitsuenak, maiatzaren 25ean Zizurkil-en ospatu zen Senidetze Eguna. Erta-Amerikako herrialdeetatik ez ezik, Kataluniako Lladotik ere 40 lagun inguru etorri ziren festan parte hartzera. [www.zizurkil.eu](http://www.zizurkil.eu) atarian senidetzeari buruzko bideo bat daukazue ikusgai. Hona hemen beste laburpen bat irudi bidez.



Lelin Ventura, Meangerako tokiko hezkuntza arduradunak "Meangera libre de analfabetismo" hitzaldia eskaini zuen.



Basi "El Che" gazte taldeko kidea Aiztondoko gazte asanblada ezberdinetako gazteekin bildu zen esperientziak eta gazteen egoera elkartrukatzeko.



Urteroko kantu jiran ere parte hartu zuten El Salvadorreko lagunek. Taldeko argazkia.



Senidetze Egunean, harrera ofizialaren ostean herritarrek ere harrera-ekitaldi hunkigarria egin zuten El Salvadorreko lagunei.



Ange Duhalde eta Fermin Valentzia izan ziren bazkalostea alaitzen.



Kataluniako Lladotik etorritako ordezkaritza zabalaren eta zizurkil-daren artean, 150 lagun inguruk bazkaldu zuten frontoian.



# UNAI MENDIZABAL

## “Plazatik *Gaztetxera* txapelketak konfiantza eman dit”

Unai Mendizabal, Zizurkilen izan zen lehen Aita Santua

### Umetatik moldatu zara ondo errimekin?

Baietz esango nuke, batez ere asko entzun dudalako. Amak eta aitak beti esan izan didate aitonaren magalen jartzen nintzela, eta bertso zaharrak abesten zizkidala. 12 urterekin, 6.mailan, irakasle batek bultzatuta txapelketa batean hartu nuen parte: bigarren saria eskuratu nuen, eta sekula bertso bat egin gabea nintzen ordura arte.

### Zure ofizioa eta afizioa baturik, bertso eskolako irakaslea zara. Biak batzea positiboa da ala ofizioak afizioa irentsiko ote duen beldur?

Ez, beldur hori ez daukat. Bertsolaritza gogoko dut, irakasle izateko ikasten ari naiz, eta biak uztartzea ondo daramat. Billabonan 10-13 urte bitarteko umeekin aritzen naiz, eta Zizurkilen 17-20 urtekoekin. Astean ordubete bakarrik izan ohi da talde bakoitzarekin, eta

gazteekin, gainera, koadrila modukoa osatu dugu. Egia da astean pare bat aldiz lagunekin bertsotan aritzeko elkartzan banaiz, asteburuaren batean saio bat ateratzen bada, eta horiek bertso eskolako lanari gehitzen badizkiogu, “bertso-betekada” eragin dezakeela.

### Harituz. Noiz hartu zenuen orratza eta haria, eta zer da josi duzuen?

Alegiako Mikel Artolak, Adur Gorostidik eta zenbait bertsolarik zerbaiten beharra ikusi genuen: esaterako, Zizurkilen bazegoen bertso eskola bat eta Alegen ere bai beste bat, baina ez ziren elkar ezagutzen. Pixkanaka biltzen hasi ginen eta hortik sortu zen Harituz; Bertsozaleen Elkargunea jarri genion abizentzat. Herri guztietan dago mundu hau interesatzen zaion zalerik, eta horiek biltzeko toki bat da, ekintzak bultzatu eta, era berean, bertso eskolak saretzeko.

### Oihana Iguaran amasarra-ekin Plazatik Gaztetxera txapelketa irabazi zenuen. Zer nolako zaporea utzi dizu norgehiagoka hark?

Ikaragarri ona. Eskolarteko txapelketan hartu nuen parte soilik ordura arte. Oso urduri jartzen nintzen horrelakoetan, eta ez nuen hori bizitzeko gogorik. Oihanak txapelketan berarekin parte hartzeko deitu zidan, binaka zela, eta neure burua ongi ikusten nuenez, animatu egin nintzen. Egia esan, lehen saiotik oso gustura aritu gara: Eibarren, Mutrikun eta azkenik, zer esanik ez, Markina-Xemeinen, finalaren egunean sekulako giroa izan genuen. Txapelketak konfiantza eman dit.

### Zizurkilgo jaietan Aita Santu eta koronel zeregi-netan ikusi zaitugu. Aurten ere adi egon behar al dugu?

Mozorro gaua bultzatzeko zerbait egin behar ge-

nuela bururatu zitzaigun. Gure artean hitz egin genuen eta egunaren bezperan prestatu genuen lehena: Aita Santuarena. Jendeak ez zuen espero eta sekulako arrakasta izan zuen. lazkoa ere ondo egon zen, baina jendea jada zain zegoen herri afariko mahaitik Adunibarrakoa noiz altxatuko ote zen. Aurten ere ea zerbait egiten dugun: orain presio pixka bat ere bai...

### Esaiguzu...

### Zizurkilgo txoko kutun bat:

Nire etxetik Lepasorora doan bidea. Umetan hor lasten ginen.

### Herriko pertsonaia bat:

Pedro Mari Otaño

### Zer dago soberan?

AHTren lanak

### Eta zer faltan?

Euskara gehiago kalean

# B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandezena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.